



**LASARTE-ORIA**

UDALA-AYUNTAMIENTO

**UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL Nº 09/2025**

L A S A R T E - O R I A K O  
UDALBATZARRAK 2025eko EKAINAREN  
12an EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.

ACTA DE LA **SESIÓN ORDINARIA**  
CELEBRADA POR EL PLENO MUNICIPAL  
DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-  
ORIA EL DÍA **12 DE JUNIO DE 2025.**

**ETORRITAKOAK:**

**ASISTENTES:**

ALKATE-LEHENDAKARIA:  
ALCALDE-PRESIDENTE:

D. Agustín Valdivia Calvo jn. (PSE-EE-PSOE)

ALKATEORDEAK:

D<sup>a</sup> Nuria Fernandez Castrillo and. (PSE-EE-PSOE)

D<sup>a</sup> Nagore Duran Urbistondo and. (PSE-EE-PSOE)

TENIENTES DE ALCALDE:

D. David Mateos Jimenez jn. (PSE-EE-PSOE)

D<sup>a</sup> Lourdes Acevedo Beldarrain and. (PSE-EE-PSOE)

D<sup>a</sup> Estibaliz Alkorta Barragán and. (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK:  
CONCEJALES:

D. Jesús Alonso Ocáriz jn. (PSE-EE-PSOE)

D<sup>a</sup>. Maite Iglesias Sanchez and. (PSE-EE-PSOE)

D<sup>a</sup>. Estibaliz Garmendia Arrieta and. (EH BILDU)

D<sup>a</sup> Uxue Loinaz Urruzola anda. (EH BILDU)

D. Oihan Agirretxe Iradi jn. (EH BILDU)

D. Asier Gorostegi Aliri jn. (EH BILDU)

D<sup>a</sup> Sandra Barcaiztegui Navarro and. (EH BILDU)

D<sup>a</sup> Goizalde Pildain Narvarte and. (EAJ-PNV)

D<sup>a</sup> Ainara Elicechea Beitia and. (EAJ-PNV)

D. Miguel Angel Tolosa Avellino jn.(ELKARREKIN PODEMOS)

D. Jose Manuel Palacio de Ugarte jn. (PP)

IDAZKARIA:  
SECRETARIO:

D<sup>a</sup> Isabel Fuertes Matxin and.

**EZ ETORRIAK:**

**NO ASISTENTES**

KONTUHARTZAILEA:  
INTERVENTORA:

D<sup>a</sup>. Leire Arteaga Zumeta and.



Lasarte-Oriako Udaletzeko Batzar-Aretoa, 2025eko EKAINAREN 12ko 18:30 zirelarik, alde zuretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Agustín Valdivia Calvo Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Isabel Fuertes Matxin idazkari andreak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

Udalbatzarra eratzeko "quórum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratu deklaratu du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

## 01.- 2025EKO APIRILAREN 10EN, MAIATZAREN 8AN ETA MAIATZAREN 21EKO BILKUREN AKTEN ONARPENA.

Bozkatzera jarrita Lasarte-Oriako Udalbatzarra AHO BATEZ ONARTZEN ditu aktak.

## 02.- 2025EKO MAIATZAREN 5ETIK 2025EKO EKAINAREN 8RA ARTE (BIAK BARNE) EMANDAKO ALKATETZA-DEKRETUEN BERRI EMATEA; 792TIK 1075RA BITARTEKO DEKRETUEN ZENBAKIAK.

Aipatutako dekretuen berri ematen da.

Udalbatzarra jakitun geratzen da.

## 03.- 2025/808 ALKATETZA DEKRETUAREN BERRI EMATEA - (GIZARTE ZERBITZUAK, BERDINTASUNA, LANKIDETZA ETA OSASUNA BATZORDEAREN LEHENDAKARITZA).

2025/808 alkatetza dekretuaren berri ematen da, non honako hau ebazten den:

**Lehenengoa.-** Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, Lankidetzeta eta Osasuna Batzordearen lehendakaritza bereganatzea.

**Bigarrena.-** Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, Lankidetzeta eta Osasuna Batzordeko benetako lehendakaritza Lourdes Acevedo Beldarrain zinegotziari eskuordetzea.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari horren berri ematea.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 18:30 horas del día 12 de JUNIO de 2025, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Agustín Valdivia Calvo, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, la Secretaria D<sup>a</sup>. Isabel Fuertes Matxin, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

## 01.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES CELEBRADAS LOS DÍAS 10 DE ABRIL, 8 DE MAYO Y 21 DE MAYO DE 2025.

Sometidas a votación el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por UNANIMIDAD APRUEBA las actas.

## 02.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA DICTADOS DESDE EL 05 DE MAYO DE 2025 HASTA EL 08 DE JUNIO DE 2025 (AMBOS INCLUIDOS); DECRETOS DEL 792 AL 1075.

Se da cuenta de los citados decretos.

El Pleno se da por enterado.

## 03.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE ALCALDÍA Nº 808/2025 - (DELEGACIÓN PRESIDENCIA COMISIÓN SERVICIOS SOCIALES, IGUALDAD, COOPERACIÓN Y SALUD).

Se da cuenta del decreto de alcaldía nº 808/2025 por el que se resuelve lo siguiente:

**Primero.-** Avocar para sí la presidencia de la Comisión de Servicios Sociales, Igualdad, Cooperación y Salud.

**Segundo.-** Delegar la presidencia efectiva de la Comisión de Servicios Sociales, Igualdad, Cooperación y Salud en la concejala D<sup>a</sup> Lourdes Acevedo Beldarrain.

**Tercero.-** Dar cuenta al Pleno de la Corporación.



Udalbatzarra jakitun geratzen da.

El Pleno se da por enterado.

**04.- ALKATETZAREN PROPOSAMENA: DEDIKAZIO  
ESKLUSIBOAK ALDATZEA.**

**04.- PROPUESTA DE ALCALDÍA: MODIFICACIÓN  
DE DEDICACIONES EXCLUSIVAS.**

**AURREKARIAK**

2025eko maiatzaren 22an, Lasarte-Oriako Udaleko EAJ-PNV udal-taldearen bozeramaileak eskaera bat sartu du erregistro orokor elektronikoa (4767 zk.), eskaera, EAJ-PNV udal-taldeko Ainara Elicechea Beitia zinegotziaren dedikazio partziala onartzeko, Kulturako Informazio Batzordearen lehendakartzari dagozkion funtzioak eta erantzukizunak eta arlo horretatik eratorritakoak behar bezala garatzeko.

**ANTECEDENTES**

Con fecha 22 de mayo de 2025, tiene entrada (nº 4767) en el registro general electrónico solicitud de la portavoz del grupo municipal EAJ-PNV del ayuntamiento de Lasarte-Oria solicitando aprobar la dedicación parcial del 75% de la concejalía Ainara Elicechea Beitia del grupo municipal EAJ-PNV para el desarrollo adecuado desarrollo de las funciones y responsabilidades correspondientes a la Presidencia de la Comisión Informativa de Cultura y las derivadas de esa área.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Eskumena**

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 32. artikulua 3. zenbakiak hau dio: «**Osoko bilkurak, alkateak proposatuta, arduraldi eskusiboko edo partzialeko karguak edo korporazio-karguak zehaztuko ditu, bai eta dagozkien ordainsariak ere.** Osoko bilkuraren erabakiak, dedikazio partzialaren kasuan, ordainsari horiek jasotzeko gutxieneko dedikazio-erregimena jaso beharko du».

Lasarte-Oriako Udalbatzak, 2023ko uztailaren 13ko bilkuran, alkatetzaren esku utzi zuen dedikazioak esleitzeko aukera, alkatetzaren dekretu bidez. Erabaki horrek berariaz xedatzen du:

*«Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 32.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Alkatetza honek, gainerako udal-taldeekin izandako elkarrizketen ondoren, honako proposamen hau egin du arduraldi eskusiboko edo partzialeko erregimeneko zinegotziei buruz, bai eta dagozkien ordainsariei buruz ere:*

*Lehenengoa.-*

*a) Arduraldi eskusiboko zinegotziak:*

*\_ Alkatea*

*\_ PSE-EE-PSOE udal-taldeko 4 zinegotzi.*

*\_ EAJ-PNV udal-taldeko zinegotzi 1.*

*\_ EH-BILDU udal taldeko zinegotzi 1.*

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

**Competencia**

El apartado 3º del artículo 32 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi señala: «**El pleno, a propuesta del alcalde o alcaldesa, determinará los cargos o corporativos en régimen de dedicación exclusiva o parcial así como las retribuciones que les corresponden.** El acuerdo plenario deberá contener, en el caso de la dedicación parcial, el régimen de dedicación mínima para la percepción de dichas retribuciones».

El Pleno del ayuntamiento de Lasarte-Oria, en sesión de 13 de julio de 2023, delegó a alcaldía la posibilidad de asignar las dedicaciones mediante decreto de alcaldía. Este acuerdo dispone expresamente:

*«De conformidad con lo establecido en el artículo 32.3 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi esta Alcaldía, tras las conversaciones mantenidas con el resto de grupos municipales formula la siguiente propuesta sobre concejales en régimen de dedicación exclusiva o parcial así como las retribuciones que les corresponden:*

*Primero.-*

*a) Concejales con dedicación exclusiva:*

*\_ El Alcalde*

*\_ 4 Concejales pertenecientes al grupo Municipal PSE-EE-PSOE.*



*b) Dedikazio partzialeko zinegotziak*

*\_ EAJ-PNV udal taldearen proposamenez dedikazio partziala duten 2 zinegotzi (2).*

*Bigarrena.- Liberatutako korporazioko kideen ordainsariak honako xehetasun hauen arabera finkatzea:*

*- Alkatea (udal-langileen 22. ordainsari-maila, 2023an indarrean zegoena): 51.891,15 euro gordin urtean.*

*- Dedikazio eskusiboko zinegotziak (2023an indarrean zegoen udal-langileen 17. ordainsari-maila) 42.786,51 €gordin urtean.*

*- Dedikazio partzialeko zinegotziak (2023an indarrean zeuden udal-langileen 17. ordainsari-mailaren % 50). 21.393,26 €gordin urtean.*

*- Kabineteburua (udal langileen 17. ordainsari-maila, 2023an indarrean) 42.786,51 euro gordin urtean.*

*- Alkatzeko idazkaria (udal langileen 13. ordainsari-maila, 2023an indarrean) 35.422,83 €gordin urtean.*

*Hirugarrena.- Udal talde bakoitzeko ordainsariak 568,19 eurotan eta zinegotzi bakoitzeko 250,00 eurotan finkatzea.*

*Laugarrena.- Dedikazio partzialaren esleipena lehendakari, lehendakariorde edo ordezkari, ordezkari edo hala eskatzen duten erantzukizunak dituzten zinegotzietan gauzatuko da. Dedikazio horiek esleitzen dituen Alkatzaren ebazpenean adierazi behar da zein diren esleipena oinarritzen duten zirkunstantzia horietako batzuk.*

*Bosgarrena.- Udalbatza osatzen duten pertsonak, dedikazio partzialarekin, Lasarte-Oriako Udaleko langileen urteko lanaldi arruntari esleitutako dedikazio-proporzioaren balioak den gutxieneko denbora bat erabili behar dute dagozkien eginkizunetan».*

Bozkatzera jarrita Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko hamabost botorekin (7 PSE-EE-PSOE, 5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV) eta bi abstentziorekin (1 ELKARREKIN PODEMOS, 1 PP) honako AKORDIOA hartzen du:

**Lehenengoa.-** Uztailaren 14ko Udalbatzaren akordioaren bigarren atala aldatzea, dedikazio partziala duten korporatiboan ordainsariei buruzkoa.

Esaten duen tokian:

«Dedikazio partzialeko zinegotziak (2023an indarrean zeuden udal-langileen 17. ordainsari-mailaren % 50). 21.393,26 €gordin urtean»

*\_ 1 Concejal perteneciente al grupo Municipal EAJ-PNV.  
\_ 1 Concejal perteneciente al grupo Municipal EH-BILDU.*

*b) Concejales con dedicación parcial*

*\_ 2 Concejales con dedicación parcial a propuesta del grupo municipal EAJ-PNV (2).*

*Segundo.- Fijar las retribuciones de los corporativos liberados conforme al siguiente detalle:*

*- Alcalde (nivel retributivo 22 de los empleados municipales vigente en el año 2023) 51.891,15 € brutos anuales.*

*- Concejales con dedicación exclusiva (nivel retributivo 17 de los empleados municipales vigente en el año 2023) 42.786,51 € brutos anuales.*

*- Concejales con dedicación parcial (50% del nivel retributivo 17 de los empleados municipales vigente en el año 2023). 21.393,26 € brutos anuales.*

*- Jefe de Gabinete (nivel retributivo 17 de los empleados municipales vigente en el año 2023) 42.786,51 € brutos anuales.*

*- Secretaria de Alcaldía (nivel retributivo 13 de los empleados municipales vigente en el año 2023) 35.422,83 € brutos anuales.*

*Tercero.- Fijar las retribuciones por grupo municipal en 568,19 € y por concejal en 250,00 €.*

*Cuarto.- La asignación de la dedicación parcial se materializará en concejales que realicen funciones de presidencia, vicepresidencia u ostenten delegaciones, representaciones, o desarrollen responsabilidades que así lo requieran. En la resolución de Alcaldía por la que se asignen estas dedicaciones se deberá hacer constar cuales de esas circunstancias fundamentan la asignación.*

*Quinto.- Las personas integrantes de la Corporación Municipal con dedicación parcial, deberá emplear en las funciones que les corresponden un mínimo de tiempo equivalente a la aplicación de la proporción de dedicación asignada a la jornada anual normal del personal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria»*

Sometido a votación el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con quince votos a favor (7 PSE-EE-PSOE, 5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV) y dos abstenciones (1 ELKARREKIN PODEMOS, 1 PP) ACUERDA lo siguiente:

**Primero.-** Modificar el apartado segundo del acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de 14 de julio referido a las retribuciones de los/as corporativos/as con dedicación parcial

Donde dice:

«*Concejales con dedicación parcial (50% del nivel retributivo 17 de los empleados municipales vigente en el año 2023). 21.393,26 € brutos anuales*»



Hau esan behar du:

Dedikazio partziala duten zinegotziek: udal-langileen 17 ordainsari-maila izango dute esleituta.

Ordainsari horiek jasotzeko gutxieneko dedikazio-erregimena % 25ekoa izango da, eta gehienekoa, % 75ekoa.

Alkatetzaren dekretu bidez ezarriko da dedikazio partzialaren araubidea eta horren esleipen zehatza korporaziokideei, lehenengo atalean ezarritako mugak kontuan hartuta.

**Bigarrena.**- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Lasarte-Oriako Udalaren egoitza elektronikoen iragarki-taulan argitaratzea.

**05.- LASARTE-ORIAKO UDALAREN BARNE-GATAZKEI, LAN ETA SEXU-JAZARPENARI ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENARI AURRE EGITEKO. JARDUERA-PROTOKOLOA BEHIN BETIKO ONARTZEA,**

Barne Erregimena, Herritarren Parte Hartzea eta Gardentasun batzordeak 2025eko ekainaren 2an egindako ohiko bilkuran igorritako diktaminaren berri ematen da.

## AURREKARIAK

2023ko urtarrilaren 11n, Barne gatazkei, lan- eta sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko jarduera-protokoloa sinatu zuen Udalak. Protokoloa Langileen Batzordeko kideekin negoziatu zen eta

Lasarte-Oriako Udalaren Osoko Bilkurak, 2023ko urriaren 19an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, aho batez erabaki du barne gatazkei, lan- eta sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko jarduera-protokoloaren hasierako onarpena.

2025eko otsailaren 17an (GAO zk. 31) espedientea jendaurrean jartzeko iragarkia argitaratu zen 30 eguneko epean, interesdunek egoki iritzitako

Debe decir:

Concejales con dedicación parcial: tendrán asignado el nivel retributivo 17 de los empleados municipales.

El régimen de dedicación mínima para la percepción de dichas retribuciones será del 25% y la máxima del 75%.

Mediante decreto de alcaldía se establecerá el régimen de dedicación parcial y su asignación concreta a los/as corporativos/as teniendo presentes las limitaciones establecidas en el apartado primero.

**Segundo.** Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios de la sede electrónica

**05.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PROTOCOLO DE ACTUACIÓN PARA AFRONTAR CONFLICTOS INTERNOS, ACOSO LABORAL-SEXUAL Y POR RAZÓN DE SEXO DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA.**

Se da cuenta del dictamen emitido por la Comisión de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia en sesión ordinaria celebrada el 2 de junio de 2025.

## ANTECEDENTES

El 11 enero de 2023 se firmó el Protocolo de actuación para afrontar conflictos internos, acoso laboral-sexual y por razón de sexo del Ayuntamiento de Lasarte-Oria El Protocolo fue negociado con los/as miembros del Comité de Personal

El Pleno del ayuntamiento de Lasarte-Oria, en sesión ordinaria celebrada el 19 de octubre de 2023, acordó, entre otros, por unanimidad, la aprobación inicial del Protocolo de actuación para afrontar conflictos internos, acoso laboral-sexual y por razón de sexo.

Con fecha 17-02-2025 (BOG nº 31) se publicó el anuncio sometiendo a exposición pública durante el plazo de 30 días a fin de que los/as



erreklamazioak edo iradokizunak aurkez zezaten.

interesados/as pudieran presentar las reclamaciones o sugerencias que estimasen pertinentes.

2025eko martxoaren 14an, Etor Ayala Leizak Langileen Batzordearen izenean aurkeztutako alegazio-idazkia sartu zen erregistro elektronikoko orokorrean (2441 zk.).

Con fecha 14 de marzo de 2025 ha tenido entrada en el registro electrónico general (nº 2441) escrito de alegaciones presentado por Etor Ayala Leiza, en nombre del Comité de Trabajadores/as.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Eskumena

### Competencia

Protokoloa onartzeko organo eskuduna Udalbatza da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jarduera-protokoloa aplikazio orokorreko arau itundutzat hartzen da, Lasarte-Oriako Udaleko Langileen lan-baldintzak arautzen dituen UDALHITZ akordioan aurreikusitakoa garatzeko.

El órgano competente para la aprobación del Protocolo es el Pleno del Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en el artículo 22 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, al ser considerado el protocolo de actuación como una norma convencional de aplicación general para el desarrollo de lo previsto en el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal del ayuntamiento de Lasarte-Oria-UDALHITZ.

### Araubidea

### Fundamentos de derecho

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen. (TAOL): 49.artikulua

- Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local. (LBRL): artículo 49

- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua (AJA) onartzen duena.

- Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales (ROF)

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

- Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

- Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales

- UDALHITZ-Lasarte-ORIako udalaren langileen lanbaldintzak arautzen dituen akordioa

- Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria UDALHITZ

### Alegazioen erantzuna

### Respuesta a las alegaciones

1.- *Barne-gatazkei, lan- eta sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko jarduera-protokoloaren "araudi aplikagarria" atalean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege*

1.- *En el apartado "normativa aplicable" del Protocolo de actuación para afrontar conflictos internos, acoso laboral-sexual y por razón de sexo debe de incluirse el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el*



*Dekretua sartu behar da (14. artikulua h idatz-zatia; 95. artikulua b eta o idatz-zatiak).*

Protokoloaren xedea da jarduteko prozedura bat ezartzea gatazka-egoerei aurre egiteko, kudeatzeko eta konpontzeko, eta, horrez gain, jokabide horiek prebenitzen lagunduko duten jarduerak ezartzea.

Protokoloak, aplikatu beharreko araudiaren barruan, zenbait arau aipatzen ditu, eta horien artean ez da sartzen enplegu publikoari buruzko legeria (ez BEEPL, ez Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea).

Izan ere, langile batek salaketa jartzen badu eta diziplina-espedita hasteko eskatzen badu, enplegu publikoko legeria aplikatzen da (bereziki, diziplina-arau-hauste larri bat egin izanaren ondoriozko diziplina-legeria), baina laneko arriskuen prebentzioaren arloko jarduketak hasteko eskatzen denean, prebentzioko lan-legeriaren eta jurisdikzio sozialaren esparruan gaude: laneko jazarpenaren edo sexu-jazarpenaren arloko prebentzio-neurriak edo prebentzio-neurri horiek urratzen dituzten jarduketan arloko neurriak aztertzen ari gara, eta erregulazioa, berez, lanekoa da, ez enplegu publikokoa.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua (14 h) artikulua) edo Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 161 j) artikulua sartzea ezestea proposatzen da, antzeko idazkera baitu, legez aurreikusitako eta legez eska daitezkeen enplegatuen eskubide indibidualei buruzkoak baitira. Protokoloak ez ditu ez sortzen ez ezabatzen, eta ez da ezinbestekoa horiek gehitzea.

*2.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea indargabetuta geratu denez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren mailako martxoaren 3ko 1/2022 Legeak ordezkatu behar du.*

Alegazioa ezestea proposatzen da, egungo araudia 1/2023 Legegintzako Dekretua baita, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako

*texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (artículo 14 apartado h; artículo 95 apartados b y o).*

El objeto del protocolo es establecer un procedimiento de actuación para afrontar, gestionar y resolver situaciones de conflicto además de establecer actuaciones que contribuyan a la prevención de dichas conductas.

El Protocolo menciona, dentro de la normativa aplicable, diferentes normas entre las que no se incluye la legislación de empleo público (ni el TRLEBEP ni la Ley 11/2022, de 1 de diciembre de Empleo Público)

La razón es que si una persona trabajadora denuncia y solicita el inicio de expediente disciplinario, se aplica la legislación de empleo público (en particular, la legislación disciplinaria derivada de la posible comisión de una infracción disciplinaria grave) pero cuando se solicita el inicio de actuaciones en el ámbito de la prevención de riesgos laborales, estamos dentro del ámbito de la legislación laboral de prevención y de la jurisdicción social: lo determinante es que estamos ante el estudio de medidas preventivas en materia de acoso laboral o sexual o de actuaciones de actuaciones que infringen esas medidas preventivas y la regulación es propiamente laboral, no de empleo público.

Se propone desestimar la inclusión del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público: artículo 14 h) o del el artículo 161 j) de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco que tiene una redacción similar, pues se refieren a derechos individuales de las personas empleadas legalmente previstos y legalmente exigibles. El Protocolo ni los crea ni los suprime ni resulta imprescindible su adición.

*2.- La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres ha quedado derogada, por lo que, debe sustituirse por la Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

Se propone desestimar la alegación pues la normativa actual es el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista



Legearen testu bategina onartzen duena.

Hala ere, kontuan izan behar da testua negoziatzen hasi zenean indarrean zegoela protokoloan aipatutako araudia, gaur egun indargabetuta dagoena. Proposatzen da parentesi artean sartzea egungo araudiari buruzko aipamena eta, horrela, babestea negoziatu den eta onartu den jatorrizko testua.

*3. I. eranskinean agertzen den Gatazkak Kudeatzeko Taldeko kideei dagokienez:*

*- Bere garaian pertsona horiek KGEko kide gisa izendatu zirela jakinda, Gatazkak Kudeatzeko Talde hori eguneratu beharko litzateke, izendatzen diren pertsonetako batek jada ez baitu udalean lan egiten.*

Barne Kudeaketako Taldea osatzen duten pertsonak sinatu zuten dokumentua (Osoko Bilkurak negoziatu eta onartu zuen), eta 1. eranskinean ageri dira.

Horietatik, pertsona bakarra ez dago (garai hartan Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria zena), eta, haren ordeaz, sail bereko egungo TAGa edo Idazkaritza Saileko titularra egongo da legezotasuna egiaztatzeko.

Ez dago eragozpenik etorkizunean egin beharreko eguneratzeak edo aldaketak alkatetzaren dekretu bidez egiteko.

Nolanahi ere, Batzordeko lau (4) kide daudela adierazi da.

*4.- 8. atalean, ERAGILE PARTE-HARTZAILEAK, 7. puntuan, honako hau adierazten da:*

*Lau urtean behin, berdintasun-taldeko kideen berritzearekin batera, KEOKo kideak berretsi edo kargutik kenduko dira.*

*Kontuan hartuta KGE horretan kargu politikoak sar litezkeela, eta kideren batek taldean jarraitu nahi/ezin duela, puntu horretan testu hau zabaltzea proposatzen da:*

*Berdintasun Planaren Negoziazio Batzordea lau urte igaro baino lehen bildu ahal izango da, baldin eta EGCK aldaketak izan baditzake izendatutako taldean.*

contra las Mujeres.

No obstante, debe tenerse presente que cuando se empezó a negociar el texto estaba vigente la normativa mencionada en el protocolo, actualmente derogada. Se propone incluir entre paréntesis la referencia a la normativa actual y salvar el texto original negociado y aprobado provisionalmente

*3.- En cuanto a los miembros del Equipo de gestión de Conflictos (EGC) que aparece en el Anexo I:*

*- Sabiendo que en su día se nombraron dichas personas como pertenecientes al EGC, se debería actualizar dicho Equipo de Gestión de Conflictos, ya que alguna de las personas que se nombran ya no trabajan en el ayuntamiento.*

Las personas que forman parte del Equipo de Gestión Interno suscribieron el documento (negociado y aprobado por el Pleno) y figuran en el anexo 1.

De ellas sólo una persona no está (la entonces Técnica de Administración General del departamento de Secretaría) y, en su lugar, estará la actual TAG del mismo departamento o la persona titular del departamento de Secretaría para verificar la legalidad.

No existe inconveniente en que las futuras actualizaciones o modificaciones que sean necesarias se efectúen por decreto de alcaldía.

En cualquier caso, se indica que el nº de miembros de la Comisión es de cuatro (4).

*4.- En el apartado 8.- AGENTES PARTICIPANTES, el punto 7º se indica lo siguiente:*

*Cada cuatro años, haciendo coincidir con la renovación de las personas integrantes del grupo de igualdad se confirmará o revocará de sus cargos a las personas integrantes del EGC.*

*Teniendo en cuenta que en dicho EGC podría incluirse cargos políticos, así como que alguno de los miembros no quiera/pueda seguir en el equipo, se propone ampliar en dicho punto el siguiente texto:*

*Pudiendo reunirse la Comisión Negociadora del Plan de Igualdad antes de pasados los cuatro años si se produjera algún acontecimiento que haga que dicho EGC pudiera sufrir cambios en el equipo nombrado.*



*Bestalde, gogoratu behar da Berdintasun Planaren Negoziazio Batzorderako izendatutako kideak, KGE bezala, ez daudela eguneratuta, eta, beraz, Berdintasun Planaren Negoziazio Batzordeko kideen izendapena eguneratu egin beharko dela.*

Proposamena ez onartzea proposatu da, EGCre jarduera arinagoa izan dadin. Ezin dira kontingentzia guztiak protokolo batean aurreikusi.

Ez dago eragozpenik etorkizunean egin beharreko eguneratzeak edo aldaketak alkatetzaren dekretu bidez egiteko.

Eztabaida txandan EH BILDU udal taldeko Garmendia andreak gaia mahai gainean uztea proposatu du, behar bezala landu ahal izateko.

Bozkatzera jarrita puntua mahai gainean uzteko proposamena Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko sei botorekin (5 EH BILDU, 1 ELKARREKIN PODEMOS), kontrako hamar botorekin (7 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) eta abstentzio batekin (1 PP) BAZTERTZEN du hura.

Bozkatzera jarrita puntua, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko hamar botorekin (7 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV), kontrako bost botorekin (5 EH BILDU) eta bi abstentziorekin (1 ELKARREKIN PODEMOS, 1 PP) honako AKORDIOA hartzen du:

**Lehenengoa.-** Langileen Batzordeak aurkeztutako alegazioen zati bat onartzea, eta Lasarte-Oriako Udalaren jarduera-protokoloa behin betiko onartzea, barne-gatazkei, lan- eta sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko.(1.eranskina)

**Bigarrena.-** I. eranskinean agertzen den Gatazka Kudeatzeko Taldearen osaera aldatzea (idazkaria barne hartuta (Administrazio Orokorreko teknikariaren ordezkari), eta alkatetzaren esku uztea, dekretu bidez, Gatazka Kudeatzeko Taldearen osaera aldatzeko ahalmena, bai eta Berdintasun Planaren Negoziazio Batzordeak proposatuta osatuko duten pertsonen izendapena ere.

Eskuordetzea egiteko osoko bilkurak hartutako erabakiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

*Por otro lado, recordar también que teniendo en cuenta que los miembros nombrados para la Comisión Negociadora del Plan de Igualdad, igual que el EGC, tampoco está actualizada, se deberá actualizar el nombramiento de los miembros de dicha Comisión Negociadora del Plan de Igualdad.*

Se propone no aceptar la propuesta para dotar de mayor agilidad la actividad del EGC. No se pueden prever todas las contingencias en un protocolo.

No existe inconveniente en que las futuras actualizaciones o modificaciones que sean necesarias se efectúen por decreto de alcaldía.

En el turno de debate la Sra. Garmendia del grupo municipal EH BILDU, propone dejar el punto encima de la mesa para poder trabajarlo mejor.

Sometida a votación la propuesta de dejar el punto encima de la mesa el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con seis votos a favor (5 EH BILDU, 1 ELKARREKIN PODEMOS), diez votos en contra (7 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) y una abstención ( 1 PP) RECHAZA la misma.

Sometido a votación el punto, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con diez votos a favor (7 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV), cinco votos en contra (5 EH BILDU) y dos abstenciones (1 ELKARREKIN PODEMOS, 1 PP) ACUERDA lo siguiente:

**Primero.-** Estimar parcialmente las alegaciones presentadas por el Comité de Trabajadores/as y aprobar definitivamente el Protocolo de actuación para afrontar conflictos internos, acoso laboral-sexual y por razón de sexo del Ayuntamiento de Lasarte-Oria (anexo 1)

**Segundo.-** Modificar la composición del Equipo de Gestión de Conflictos que figura en el anexo I (incluyendo el/la Secretario/a (en lugar del/ la Técnico/a de Administración General) y delegar en la alcaldía la facultad, mediante decreto, de modificar la composición del Equipo de Gestión de Conflictos y de nombrar a las personas que lo constituyan a propuesta de la Comisión Negociadora del Plan de Igualdad.

El acuerdo plenario por el que se produzca la delegación surtirá efectos desde el día siguiente al de su adopción, sin perjuicio de su publicación en el «Boletín Oficial» de Gipuzkoa.



**Hirugarrena.-** Behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian argitaratzea

**Laugarrena.-** Errekurtsoak: Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Hala ere, interesatuek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Boto azalpeneko txandan ELKARREKIN PODEMOS udal taldeko Tolosa jaunak parte hartzen du.

**06.- OSTALARITZA-JARDUERETARAKO TERRAZA ETA MAHAITXO OSAGARRIAK JARTZEKO JABARI PUBLIKOKO LURZORUAREN OKUPAZIOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA HASIERAKO IZAERAZ ONARTZEA.**

Hirigintza, Obrak eta Ingurumena batzordeak 2025eko ekainaren 2an ohiko bilkuran igorritako diktaminaren berri ematen da.

## APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

Aplikatu beharreko legeria honako hau da:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4., 22.2.d), 25., 49. eta 70.2 artikulua. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 55/2018 Epaiak Konstituzioaren aurkakotzat jo ez duenari dagokionez.
- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 56. artikulua.
- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7.c) artikulua.

**Tercero.-** Publicar el texto definitivo en Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web

**Cuarto.-** Recursos: Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, sin perjuicio de que los interesados puedan interponer contra el mismo recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián.

En el turno de explicación de voto interviene el Sr. Tolosa del grupo municipal ELKARREKIN PODEMOS.

**06.- APROBACIÓN CON CARÁCTER INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LA OCUPACIÓN DE SUELO DE DOMINIO PÚBLICO PARA LA INSTALACIÓN DE TERRAZAS Y VELADORES COMPLEMENTARIAS A LAS ACTIVIDADES DE HOSTELERÍA.**

Se da cuenta del dictamen emitido por la Comisión de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente en sesión ordinaria celebrada el 2 de junio de 2025.

## LEGISLACIÓN APLICABLE

La Legislación aplicable es la siguiente:

- Los artículos 4, 22.2.d), 25, 49 y 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.
- El artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en lo no declarado inconstitucional por Sentencia del Tribunal Constitucional 55/2018, de 24 de mayo.
- El artículo 56 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, aprobado por Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril.
- El artículo 7.c) de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.



## AURREKARIAK

39/2015 Legearen 133. artikulua, "Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea" izenekoa, Konstituzioaren aurkakotzat jo zen maiatzaren 24ko 55/2018 Epaiaren bidez, baina tarteki honi eutsi zitzaion: "Lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko da".

Ezarritakoaren arabera, ordenantzaaren aurretiko kontsulta bat egin zen, egunean bertan udalaren webgunean argitaratuz. Emandako epean hiru iradokizun aurkeztu dira:

1. Terrazaren eta eraikin baten etxabeen dauden etxebizitzaren arteko distantzia murriztea justifikatzen duen txosten teknikorik ez dagoela aipatzen dute..
2. Materiala kasu guztietan establezimendutik kanpo utzi ahal izatea eskatzen du. Gainera, irizpidea aldatzeko eskatu du, eta establezimenduaren fatxadaren luzera ez dadila izan hura instalatzeko irizpide bakarra.
- Terrazako ordutegitik kanpo materiala espazio publikoan uzteko aukerari buruzko aldaketarekin ados dagoela adierazi du

Proposatutako aldaketak hiru alderditan oinarritzen dira:

- A. Terrazako ordutegitik kanpo materiala espazio publikoan uzteko aukera, establezimenduaren barruan lekurik ez duten elementuetarako. Establezimendu barruan lekurik ez duten elementuak bakarrik utz daitezke espazio publikoan. Alde horretatik, ez da onartu gordailua kasu guztietan baimentzeko iradokizunari.
- B. Terrazetatik beheko solairuko etxebizitzetarako tartea. Etxebizitza mugakidearen edozein zulotarako distantzia ezarri behar dela ulertzen da, etxebizitzan bizi direnei eragozpenik ez sortzeko, altuerako etxebizitzaren pareko kasua baita.

## ANTECEDENTES

El artículo 133 de la Ley 39/2015, denominado "Participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas con rango de Ley y reglamentos", fue declarado inconstitucional por Sentencia nº 55/2018, de 24 de mayo, si bien se mantuvo el inciso de que «Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública»

De conformidad a lo establecido se efectuó una consulta previa a la ordenanza a través de su publicación en la web municipal el día. En el plazo otorgado se han presentado tres sugerencias:

- 1.- Hacer referencia a que no existe informe técnico que justifique la reducción de la distancia entre la terraza con las viviendas situadas en los bajos de un edificio
- 2.- Solicita que se pueda depositar el material fuera del establecimiento en todos los casos. Además solicita que se cambie de criterio y que la longitud de fachada de establecimiento no sea el único criterio para su instalación
- Muestra su conformidad con la modificación relativa a la posibilidad de depositar el material en el espacio público fuera del horario de la terraza

Las modificaciones propuestas se basan en tres aspectos

- A. Posibilidad de depositar el material en el espacio público fuera del horario de la terraza para aquellos elementos que no tengan cabida dentro del establecimiento. Se considera que solamente se pueden depositar en el espacio público los elementos que no tengan cabida en el interior del establecimiento. En este sentido no se atiende la sugerencia de que se permita el depósito en todos los casos.
- B. Separación de las terrazas a huecos de viviendas situados en planta baja. Se entiende que se debe establecer la distancia a cualquier hueco de la vivienda colindante a fin de evitar molestias a los residentes en la vivienda, ya que es un caso parejo a las viviendas en altura.



C. Azken aldaketa udal teknikarien proposamen bat da, III moduluak fatxadarekiko luzetara edo perpendikular jartzea errazteko.

C. La última modificación es una propuesta de los técnicos municipales para facilitar la colocación de módulos III de forma longitudinal o perpendicular a la fachada

## ONARTZEKO PROZEDURA

Udal ordenantzak onartzeko prozedura Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikuluan ezarrita dago.

Toki-ordenantzak honako prozedura honen arabera onartuko dira:

- a) Udalbatzaren hasierako onespena.
- b) Jendaurrean jartzea eta interesdunei entzutea, gutxienez hogeita hamar eguneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.
- c) Epearen barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebaztea eta osoko bilkurak behin betiko onartzea. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada, ordura arte behin-behinekoa izan den erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da.

Lege horren 70. artikulua araberan, ordenantzak, hirigintza-planetako arauen artikulua barne, bai eta horiei dagozkien erabakiak ere, baldin eta behin betiko onartzea toki-erakundearen eskumena bada, probintziako "Aldizkari Ofizialean" argitaratuko dira, eta ez dira indarrean jarriko harik eta testu osoa argitaratu eta 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igaro arte.

Bozkatzera jarrita Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko bederatzi botorekin (7 PSE-EE-PSOE, 2 EAJ-PNV) eta zortzi abstentziorekin (5 EH BILDU, 1 ELKARREKIN PODEMOS, 1 PP, 1 Estitxu Alkorta EAJ-PNVko zinegotzia) honako AKORDIOA hartzen du:

**Lehena.-** Lasarte-Oriako udalerrian ostalaritza-jardueretarako terraza eta mahaitxo osagarriak jartzeko jabari publikoko lurzorua okupazioa arautzen duen ordenantzaren aldaketa hasierako izaeraz onartzea.

## PROCEDIMIENTO DE APROBACION

